

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresako funtsezko elementua garraioa izango litzateke. Horren bidez, alokatzen dugun helikopteroak, haitzetan bildutako zaborra mendiaren goiko aldera edota kamioia dagoen tokira garraiatuko luke, gero kamioiak zabortegira eramateko hondakinak.

Horretarako, gure proiektuak aurrera egin dezan eta eraginkorra izan dadin, baliabideak multzo ezberdinetan banatzen dira: baliabide fisikoak eta giza baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokionez, kamioia eta helikopteroa izango lirateke gure zerbitzua betetzeko erabiliko diren elementu material edo ukigarriak. *Ekowave* proiektuak zerbitzua bat eskaintzen duenez, hori betetzeko, hau da, garraiorako beharrezkoak diren elementuak beharko genituzke, esan bezala, kamioia, eta helikopteroa.

Giza baliabide zein baliabide intelektualetan oinarrituz, enpresaren langileak gu geu gara. Bestalde, ongiatorria izango da beren borondatez parte hartzera animatzen den oro.

Proiektu hau hiru hiletik behin burutzen denez, komenigarria izango litzateke jendea parte hartzera animatzea, hiru lagunek ezin baitituzte hiru hilabete horietan metatutako zabor kantitate handiak bildu. Taldeko kideok, lana banatuko dugu. Hirurok hondakinak bilduko genituzke eta sare-sozialen mantenua kudeatuko genuke. Horrez gain, garraio, Udaletxe eta Urola Kostako elkarteen biderapena enpresakideon artean banatuko dugu.